



## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Gure proiektua burutzeko funtsezko baliabideak, oso sinpleak direla esan dezakegu. Gure marka erregistratu eta produktua patentatuko dugu, baita produktuaren ontzikiaren forma eta erabiliko diren materialak. Gure marka erregistratzean, inork ezingo du erabili gure baimenik gabe. Horrez gain, beharrezko kontaktuak lortuko ditugu, hasiera batean plastikozko produktuak egiten dituzten fabrika batekin kontaktuan jarriz eta gurina ekoiztuko diguten baserriekin kontaktatuz, ondoren, Unialco taldeko supermerkatuei saltzeko. Beraz, Unialcorekin ere kontaktatuko degu. Azkenik, sare sozialak erabiltzeko abilezia izan beharko dugu, sortuko dugun web-gunean arin aritzeko.